

## BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

### 2733

*70/2022 DEKRETUA, ekainaren 7koa, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea: Lekeitioko udalerrian, Lekeitioko lehen mailako saneamendu-sareko Ikutza-Loiberreka kolektorearen berrikuntza proiektua burutzeko beharrezko ondasunak eta eskubideak.*

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, «Lekeitioko lehen mailako saneamendu-sareko Ikutza-Loiberreka kolektorearen berrikuntza» proiektuaren espediente formalki onartu eta gero, proiektua gauzatzeko lur guztiak erabiltzeko beharra adierazi zuen.

2022ko urtarrilaren 12an, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak nahitaezko desjabetze-espediente hasia eta ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zuen, hamabost eguneko epean, prentsan eta 2022ko urtarrilaren 27ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (18. zk.). Geroago, 2022ko apirilaren 19an egindako bilkuran, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Eusko Jurlaritzari proiektuak ukitzen dituen eskubideak eta ondasunak okupatzeko urgentziaren adierazpena eskatzea erabaki zuen, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak zehaztuta eta banakatuta agertzen dira espediente jasotako zerrendan, identifikazioak egiteko datu askirekin agertu ere. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta ez zen alegaziorik aurkeztu, administrazio-espediente adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espediente izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luzaezintzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Ikutza-Loiberreka lehen mailako sareko kolektorea gaur egungo Uribarren Jauregia Hotelaren sotoaren barrutik igarotzen da. Egoera hori ez da bateragarria lehen mailako sarearen ustiapenarekin eta mantentze-lanekin.

Proiektuak jasotzen dituen kolektorearen desbideratze lanak burututa, trazadura osoa bide publikoetan kokatuta egotea lortuko da, eta horrek ustiapen eta mantentze-lan egokiak ahalbidetuko ditu.

Jarduketa horren kokapena kontuan hartuta, lan horiek epe mugatuan gauzatu beharko dira, udalerrian jende gehien dagoen alditik kanpo, hotelaren nahiz udalerraren ohiko jarduerari eragitea saihesteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f artikuluan xedatzen denez, Eusko Jurlaritzari dagokio nahitaez desjabetu beharreko ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzeko, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenean: exekuzio-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde-antolamenduaren eskumenak dituen sailburuari dagokio horretarako proposamena aurkeztea Gobernu Kontseiluari.

Hori dela eta, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak, 2022ko ekainaren 7ko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

2022ko ekainaren 17a, ostirala

## XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.- Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz, nahitaez desjabetzeko, «Lekeitioko lehen mailako saneamendu-sareko Ikutza-Loiberreka kolektorearen berrikuntza» proiektua burutzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak urgentziaz okupatu beharrezkoak direla deklaratzeko. Berariaz abiarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztuta eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

## AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aurretiaz berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko ekainaren 7an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.